

a u z o z a u z o  
altza


# Altzako historiari begira

O rain arte Altzako Historia Mintegia bezala ezagutu dugun taldeak lortu berri du bere independentzia. Honela, Altzako Historia Elkarteak eratu da. Talde honek Casares Kultur Etxearen menpe funtzionatu du orain arte baina hemendik aurrera elkarte modura mugitu ahal izango da, bere lanak ikertu, landu eta prestatzeko. Dena den, Kultur Etxean salgai jarraituko dute Altzako mapa eta liburuek.

## Altza Ibilbide Historikoa

Altzako Historia Mintegiak landu eta kaleratu dituen lanen artean 1989. urteko martxoan argitaratutako «Altza Ibilbide Historikoa» dugu. Bertan, Altzako Udalerriak anxioa gertatu baino lehen zeuzkan mugak agertzen dira. Liburu honek eduki historiko-artistikoak garatzen ditu eta bertan aurkezten den ibilbidearen helburua oraindik bizirik dago, ondare historikoa auzokideengan berpiztu nahi baititu.

Ibilbidea XVII. mendeko Casares baserrian hasten da. Baserri hau hasera batean barroko estilokoa



Imanol

zen. Duela urte batzuk Udalak bereganatu zuen eta osoa eraberritu zuen auzoko Kultur Etxe gisa egokituz.

Casaresen aurrez aurre Tomasene baserria dugu. Baserri honek oraindik mantentzen du garai batean inguratzen zuen harresiaren zati bat. Baita lehio urratu eta gurutze txiki bat ere atzekaldeko ormarren goiko aldean sarturik.

Arriaga Zar edo Harria, Eguzkitza, Milles, Artzak, Artxipi, Kastillun, Zilargiñene, Galantene, Txurdiñene, Txipres etabar luze bat topa ditzakegu «Altza Ibilbide Historikoa» liburu honetan.

## Harresiak zutik

Interesgarria da beneat ikustea nola Altza inguruko baserri askotan oraindik zutik dirauten baserri hauek inguratzen zizutuzten harresiak. Badirudi harresi hauen funtsa, defentsa izan zela, XIX. mendean sortutako gudu militarrek zirela eta.

Guzti honek, Altza garai hartan militarki leku estrategiko garrantzitsua zela erakusten digu. Bere gune altuetatik Donostia, Pasaiaiko portua eta baita Irungo mugarantz zihoan errepidea kontrola zitekeen.

LARRAITZ GARMENDIA

## Santa Lucia Aseguru

etxeak Altzako auzoan antolatzen duen Futbol Sala Txapelketaren azken laurdenak igandean jokatuko dira. Partiduak sailkapen orokorreko lehenengo zortzi ekipoei jokatuko dituzte.

Carpintería Alpek Arriazar Taberna-Autoservicio Ramosen kontra jokatuko du. Altzatarra K.E.k Bar Anamari-Ikusketa fotoren aurka. S.C.D.C Gureak Santa Barbararekin eta Boskotarrak K.E EKO Altzaren aurka jokatuko du.

Partiduak Polikiroldegian jokatuko dira apirilaren 24ean, 9.30etan.



**CALZADOS ZABALO**

Oinetakoak - Poltsak eta osagaiak

Larratxo 16,  
☎ 39 14 15 DONOSTIA

**HIPER LARRATXO**

Opariak - Barruko Arropa - Tresneriak - Jostailuak - Bisuteria

Bertsolari Txirrita 10 ☎ 40 05 95 DONOSTIA